



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango







Osakidetza

BARRIALDE-GALDAKAO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACION SANITARIA INTEGRADA BARRIALDE-GALDAKAO



2023KO MEMORIA

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko
jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa



AURKIBIDEA

2020KO HELBURUAK ETA EGINDAKO EKINTZAK	6
BARNE FUNTZIONAMENDUA 2020AN.....	4
PROTOKOLOAREN HARIRA 2020AN ARTATUTAKO EMAKUMEAK.....	18
SARRERA	3

1. SARRERA

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloak urte hauetan egin duen ibilbideari begiratuta, lehendik egina dagoen bidea hobetzeko ekintzak garatu eta neurriak hartu dira.

Memoria honen helburua urtean zehar landutako ekintzen eta helburuen berri ematea da; baita aurtengo ikasturtean lanerako izan dugun funtzionamenduaren berri ematea ere. Era berean, 2023an antzemandako aurrerapenen eta erronken inguruko gogoeta egiteko gunea ere eskaintzen du. Bestalde, Koordinazio Orokorreko Mahaiaren barne-gogoeta gisa eta hurrengo urteko hobekuntza arloak eta erronkak identifikatzeko tresna gisa ere balio du, betiere, plangintza hobetuz.

2023rako helburuak 2022 amaieran eta 2023 hasieran ezarritako plangintzak ezarri ditu. Plangintza horretan Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta hobia emateko erakunde arteko III. Hitzarmena onartzea aurreikusi zen. Hitzarmen hori lankidetzaren emaitza izan da, bai mahai politikoarena, bai teknikoarena, eta lotura duten gai gakoak jorratzen ditu. Dena den, aurreko urteetako ildoekin ere lanean jarraitzea erabaki zen, egindako bideari jarraituz eta, aldi berean, behar berrien aurrean adi egonez.

Urte honetan zehar aldaketak izan dira baliabideen ordezkarietan, eta beharrezkoa izan da gure helburuak egokitzea, egungo lehentasunetara egokitzeko, batez ere lehen hilabeteetan zehar. Koordinazio-mahaiak finkatu eta langile berriak mahai horien dinamikara sartu dira.

Baliabideetan emakumeak artatzean horiek igarotzen dituzten prozesuak hobeto ezagutzen jarraitzeari ere garrantzia eman diogu, korapiloak identifikatzeko eta hobetzeko proposamenak ezartzeko. Gogoeta berezia egin da egun dauden zerbitzuen eta egun ematen den erantzunaren kalitatearen gainean, baita ezartzeke dauden zerbitzu berrien aurreikuspenaren gainean ere.

Aurreko urteetan bezala, Memoria hau Koordinazio Orokorreko Mahaiak egin eta Koordinazio Teknikoko Mahaiak aztertu du Koordinazio Politikoko Mahaiari aurkeztu ahal izateko.

Koordinazio Orokorreko Mahaia

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

2. BARNE FUNTZIONAMENDUA 2023AN

II. Protokoloak erakundeen arteko koordinaziorako zenbait maila ezartzen ditu. **Instituzioen arteko koordinazioa** da nagusia, horretarako diseinatutako Koordinazio Mahaien bidez egin beharrekoa. 2023an **21 bilera** egin dituzte mahai horiek:

 KOORDINAZIO OROKORREKO MAHAIA (KOM) Parte-hartzaileak: inplikaturako udaletako berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.	 KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA (KTM) Parte-hartzaileak: indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko zerbitzuetako teknikariak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.	 KOORDINAZIO POLITIKOKO MAHAIA (KPM) Parte hartzaileak: udal desberdinetako politikariak, mankomunitateko presidentea, Ertzaintzaren eta Osakidetzaren arduradunak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.
Aldizkakotasuna: Hiru hilean behin (beharraren arabera). <i>2023ko apirilak 5 (Abadiño)</i> <i>2023ko irailak 14 (online)</i> <i>2023ko abenduak 14 (Berriz)</i> <i>2023ko abenduak 11 (Bilbo)</i>	Aldizkakotasuna: urtean lau aldiz (hiruhileko bakoitzean behin). <i>2023ko urtarrilak 27 (Durango)</i> <i>2023ko apirilak 28 (Durango)</i> <i>2023ko uztailak 7 (Durango)</i> <i>2023ko urriak 27 (Durango)</i>	Aldizkakotasuna: behin, urtearen hasieran. <i>2023ko otsailak 3 (Durango)</i>
Helburuak: Urte honetan zehar, protokoloan jasotako ekintza guztiak bultzatzera bideratuta egon dira mahai honen helburuak.	Helburuak: Arreta jaso duten emakumeen datuak partekatzea, hobetzeko arloak hautematea eta, aurren, zehazki, baliabideek emakumei arreta ematean jarraitzen duten prozedura ezagutzera ematea, baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko, indarguneak eta hobetzeko alderdiak identifikatuz, beste gauza batzuen artean.	Helburuak: Urte osoan zehar egindako lana ezagutzea eta mahai teknikoak hartutako erabakiak baliozkotzea.



**TOKIKO KOORDINAZIOKO
MAHAIA (TKM)**

Gainera, **udal-koordinazioa** izateak duen garrantzia ere zehaztu da. Udal-sailetako profesionalek parte hartzen dute bertan, teknikariek zein politikariek, emakumeen aurkako indarkeriaren arreta, prebentzio eta jarduketa arloko funtzioak eta zuzeneko eskumenak dituztenek.

Kasu honetan, udal bakoitzean Tokiko Koordinazio Mahai bat edukitzea proposatzen da. 2021era arte, Elorriok bakarrik zuen Tokiko Mahaia. Mahai horrek bere jarduera eta logika mantentzen ditu, baina mahaiei emandako laguntzaren garrantzia indartu behar da, eta sistematik kanpo geratzen diren kasuetan sakondu.

2022an eta 2023an ahalegin handia egin da gainerako udalerrietako tokiko mahaia aktibatzeke. Abadiñon eta Durangon mahaia sendotu egin da, eragile egonkorrekin eta hiru hilean behingo bilerekin. Urtean zehar arreta jaso duten emakumeen kasu zehatzak konpontzeko saiakera egin da. Berrizeko mahaia erritmoa hartu du dagoeneko eta pausoak ematen hasi da.

Bakoitza bere testuinguruan, mahai horiek sortuz eta berriz aktibatuz, udalerriek esku-hartze zuzena egiteko aukera dute, mahai teknikoak ez bezala. Mahai horiek arreta lantzeko aukera gehiago eskaintzen dituzte. Aldiz, mahai teknikoa koordinazioan oinarritzen da. Mahai teknikoa eta tokikoa osagarriak dira.

Tokiko testuinguruak ikuspegi mikroa, zehatza eskaintzen du eta arreta egokiagoa eskaintzeko bidea da. Halaber, udalerri bakoitzaren testuinguruan erantzun instituzionala jaso duten kasuen gaineko gogoeta egiteko aukera eskaintzen da, balorazio laburra eginez, etorkizuneko egoeretarako hobetzeko arloak identifikatu ahal izateko.

Aurten, honako hauek izan dira tokiko mahaien testuinguruan egindako bilerak:

Elorrio	Abadiño	Durango	Berriz
2023/01/25	2023/01/25	2023/01/27	2023/10/24
2023/04/26	2023/04/26	2023/04/28	
2023/06/28	2023/06/28	2023/07/07	
2023/10/26	2023/10/24	2023/10/27	

3. HELBURUAK ETA 2023AN GAUZATUTAKO EKINTZAK

Protokoloaren esparruko helburuak eta egindako ekintzak helburu finkatueta eta helburu espezifikoetan bana daitezke:

<i>Helburu eta ekintza FINKATUAK</i>	<i>Helburuak eta ekintza ESPEZIFIKOAK</i>
•Urtero aldizka egiten direnak dira, eta protokoloan, urtetik urtera, ohiko prozeduran ezarrita daude.	•Abian den ikasturterako diseinatzen dira, eta ez dago urtero jorratu beharrik.

2023rako helburuak urtearen hasieran (urtarrilean) ezarritako plangintzak zehazten ditu, baina hasierako helburu batzuk aldatu edo data desberdinetan egin dira, protokoloaren beharretara egokitzeko, eta, aldi berean, ekintza berriak sartu dira. Jarraian, urtearen hasieran markatutako helburu orokorrak aurkezten dira, dagozkien aldaketekin:

- Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.
- Arreta-baliabideetan arreta emandako emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeen erantzuna hobetzeko.
- Mahai Teknikoan parte hartzen duten pertsonen artean informazioa trukatzeko tresna bat izatea.
- Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.
- KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako informazio erabilgarria eta eguneratua ematea.
- Urteko plangintza diseinatzea eta indarrean den urtean egindako lana ebaluatzea.
- Protokoloaren edukia zabaltzea.
- Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea.
- Gaurkotasuneko gaiekin zerikusia duten mahaietan intereseko zenbait gogoeta sortzea.
- Indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten profesionalentzat erabilgarria izan daitekeen ingurune baliabideak ezagutzera ematea.

Hurrengo tauletan, **2023ko helburuak eta urtean zehar egin diren ekintza zehatzak** erakusten dira, baita bakoitzean parte hartu duten eragileak, egindako ekintzetatik eratorritako produktua eta ekintza bakoitzak erantzuna eman nahi izan zion Protokoloko¹ neurria ere. Gainera, xehetasunez azaltzen da ekintza bakoitza.

¹ Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloak jasotzen duen jarraipenerako eta ebaluaziorako fitxa hartuko dugu kontuan, eta hala, protokoloan jasotako ekintzak zenbateraino betetzen diren ebaluatuko ditugu.

AURTEN LANDUTAKO HELBURUAK ETA EKINTZA FINKATUAK				
HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIOA/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
1. Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.	- KTM, TKM eta KOMen bilerei data jartzea eta bilerak egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Bileren egutegia eta aktak.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
2. Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeek ematen duten erantzuna hobetzeko.	- KTMko eragileen artean informazioa partekatzeko sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea. - Lauhilekoko datuei eta koordinazio eta erantzunari lotutako hobekuntzei buruzko hausnarketa KTMn. - Artatutako emakumeei buruzko urteko datuen azterketa.	KTMko profesionalak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Excel tresna. Urtean zehar artatutako emakumeei buruzko dokumentua.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
3. Mahai Teknikoan inplikaturako eragileen artean partekatutako tresna bat izatea, informazioa errazago trukatu ahal izateko.	- Barne webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durungaldeprotokoloa.org	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Barneko webgunea.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
4. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza espezifikoa antolatzea.	- KTMri eta interesa duten beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza. - Politikariei zuzendutako prestakuntza.	KTMko profesionalak. Interesa duten beste eragile batzuk. Politikariak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Aurkezpenerako Power pointa.	I1.2. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza espezifikoa antolatzea.
5. KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako informazio erabilgarria eta eguneratua ematea.	- Hilero bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Hileroko buletinak.	A1.2. Protokoloarekin lotutako baliabideak hedatzea.
6. Urteko plangintza diseinatzea eta abian den urtean egindako lana ebaluatzea.	- Urteko memoria dokumentua egitea. - Plangintza dokumentua egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Urteko memoria. Urteko plangintza.	K1.1. Protokoloaren ezarpenari lotuta, urteroko jarraipenaren txosten bat egitea.
7. Protokoloaren edukia hedatzea.	- Protokoloaren triptikoa banatzea protokolotik kanpoko eragileekin egiten diren bileretan.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	-	A1.1. Protokoloaren edukia hedatzea.

Egindako ekintzen xehetasunak:

Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. KTMen bilerei data jartzea eta bilerak egitea.

Gaur egun, Koordinazio Teknikoko Mahaiak lau bilera egiten ditu, hiruhileko bakoitzeko bat. Denetan **aztertzen dira dagokion hiruhilekoan artatutako emakumei buruzko datuak, eta erakundeen arteko koordinazioari buruzko informazioa trukatzeko da**. Mahai tekniko osoan kasuekin zerikusia duten gaiei buruz gogoeta egiteko gunea dago.

2022an zehar, oztopoak eta erresistentziak hauteman ziren datuak hauteman eta biltzeko garaian. Aurten, ahalegin kolaboratiboa egin da parte-hartzaile bakoitzarekin muga horiek gainditzeko. Aldi horretan zehar, bikotekide edo bikotekide ohitik harago doazen indarkeria moduak ikusarazteko ahaleginean jarri zuten fokua, eta modu egokian txertatu zituzten gure Excel tresnak, gure baliabideetara iristeko hainbat bide nabarmenduz, polizia harago.

Aurten, **Berdintasun Legearen aldaketarik esanguratsuenak** gure lanean txertatzeko aurrerapausoak eman ditugu. Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren arazo sistemiko eta unibertsalaren barruan kokatzen jarraitzen du legeak. Gainera, terminoa hedatu du eta, «emakumeen aurkako indarkeria matxista» terminoa ezarri du, bai ikuspegi kontzeptualetik, bai baliabideak egokitzeari dagokionez.

Aldaketarik adierazgarrienen artean daude legedi-aldaketara egokitzea, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barrukoa eta sexu-indarkeria ez ezik, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren beste moduak ere jorratuz. Gainera, biktimek beren seme-alaben eta inguruko beste pertsona batzuen arreta jasotzeko duten eskubidea aitortu da.

Mahai teknikoko eragileak aldatu arren (erretiroa, langile-aldaketak, ordezkapenak, bajak...), aurten mahai horretako eragile berrien presentzia finkoa ezartzea lortu da. Erakundeen arteko koordinazioa indartze aldera, bilerak egin dira eta posta elektronikoko bidezko harremana ezarri da mahaiko kide berriekin, gizarte-zerbitzuetako erreferentziazko pertsonen (erreferenteak dira indarkeriaren eta arreta soziojuridikoaren arloan) eta Abadiño, Durango eta Berrizko berdintasun-teknikarien kasuan bereziki. Langileei ekintzen garapenaren berri eman zaie, eta protokoloaren zentzua eta helburuak helarazi zaizkie.

Horrez gain, harremana indartze aldera, 2023an **Andragunearekin** lotura indartzea izan da xedea. Harreman hori ezartzeko formaturik eraginkorrena definitzeko prozesuan gaude oraindik, eta aurreikusten dugu indarkeria matxistari buruzko gogoetek, oro har, trukerako aukera baliotsua eskain dezaketela. Espazioaren dinamizatzailerak Durangoko tokiko mahaian sartzea erabaki zen, prebentzioaren eta hautematearen arloan ekarpen esanguratsua egiten baitu.

Kontaktu guztiak erabat eguneratu dira, eta webgunean ere argitaratu dira.

Datuak partekatzeke jarduketak mahai teknikoetan indarra galdu duen heinean, parte-hartzaileen arteko ulermena eta koordinazioa hobetzera bideratutako espazioa zabaldu da. Kasuak hautemateko garaian prozesuen sistematizazioa lantzearen garrantzia nabarmendu da, eraginkortasuna hobetzeko, eta datuak biltzeko sistema hobetzeko, datuak mahai politikoarekin partekatzeke (ikuspegi integralagoa izate aldera) eta gizarte-zerbitzuekin lankidetzat estua izateko lan egin da, datuen bilketa egokiagoa izan dadin.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

Dagokien erakundeetara bidaliko diren akordioak eskuratzeko ahalmena du KTMk, protokolo honetan ezarritako helburuak bete ahal izateko. Akordio horiek modu ordenatuagoan jasotzeko eta islatuta gera daitezen, **akordioen fitxa** bat sortu dugu. Akta bakoitza onartu ondoren betetzen da fitxa.

Helburua beteta

Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumeei buruzko datuak partekatzea KTMko eragileen artean informazio sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea.

KTMko kideek **Excel-tresna**² bat partekatzen dute, eta hor identifikatzen dituzte baliabideetan arreta jaso duten emakumeak. Datuak erraz eta modu didaktikoan biltzeko lan-tresna erabilgarriak dira, teknikari guztiek tresna erraz bat txerta dezaten beren jardueran, eta, hala, indarkeria jasan duten emakumeei arreta integrala, koordinatua, indibidualizatua eta kalitatezkoa berma diezaieten.

Hasieran, Ertzaintzak betetzen du Excela, eta ondoren, gainerako baliabideetakoek; jarraian, gizarte-zerbitzuek eta azkenik Osakidetzak (normalean kasu gehien jasotzen diren ordenaren arabera).

Aurten, gure ikuspegia aurretiaz identifikatutako indarkeria moten berrikuspenean oinarritu da bereziki. Helburu nagusia izan da indarkeriaren forma berriak eta aitortza txikiagoa dutenak sakonago ulertzea eta identifikatzea. Tokiko mahaietan geroz eta gehiago lantzen dira sexu-indarkeriekin lotutako kasuak, baita espazio publikoetakoak ere, batik bat jazarpen-adierazpenak. Kaleko jazarpena eta lan-jazarpena.

Aldi berean, instantzia polizialeetatik edo judizialeetatik harago doazen hainbat sarbide nabarmendu ditugu. Aitortza horrek nabarmentzen du beharrezkoa dela sarbide askotarikoagoak izatea, laguntza bilatzen duten emakumeen behar eta baldintza aldakorretara egokitzeko.

Delitu sexualen kasuetan datuen bilketa hobetzeko, kasu mota horiek eramaten dituen Ertzaintzako sailarekin hiru hiletik behin harremanetan jarriko garela adostu dugu Ertzaintzarekin. Hala, hiruhileko bakoitzaren amaieran, gertatutako kasuen gainean galdetuko diegu, eta kasu horiek mahai teknikoan jasotzen eta aztertzen hasiko gara. Berdintasun Legeak eta gure protokoloak indarkeria matxistatzat hartzen dituen datu hauek barne hartu ahal izateko urratsak dira.

Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuek oraindik ere ez dituzte hautemandako kasu guztiak gure tresnan sartzen. Abadiñoko eta Elorrioko tokiko mahaietan aztertzen eta lantzen dira kasu horietako batzuk, baina Durangon zailagoa da, profesionalagoak direlako eta kasuak ere askoz gehiago direlako. Hortaz, salaketarik ez jartzea erabakitzen duten kasu batzuk bidean geratzen zaizkigu. Mahai tekniko batean baino gehiagotan atera da gai hori, eta ahalegina egingo dugu alderdi hori hobetzeko.

²Arreta jaso duten emakumeen inzialak biltzen ditu Excelak datuak lagatzen direnean, hala, jakin daiteke ea emakumeek protokolo baliabideetan arreta jaso duten.

Tresna hori gainerako baliabideetara iristen ez diren kasuak, gorabehera zehatzak, zailtasunak eta kasuen espezifikotasunak eta abar hautemateko abiapuntua da. Hortik abiatuta, erantzuna emateko eta hobetzeko ekintzak zehazteko saiakera egiten da.

Bildutako datuekin, urte amaieran, arreta jaso duten emakumeen datuei buruzko dokumentu bat prestatzen da (datuen azterketa estatistikoa) eta urteko memoriari eranstean zaio.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduerak eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

Egun indarkeria jasaten duten emakumeak artatzen dituzten eragileak informazioa sistematizatzeko ariketa bat egiten ari dira, indarkeria kuantifikatzeko eta instituzioetatik egiten den prebentzioa eta arretoa hobetzen laguntzeko patroiak irudikatzeko.

Helburua beteta



Tresna partekatua izatea. Barne-webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durungaldeprotokoloa.org



KTM osatzen duten kideentzako barne-erabilerarako web-espazio honek aukera ematen du prozesuan zehar sortzen diren **dokumentu** guztiak bertara iraultzeko: saioetako aktak, txostenak, jorratzen diren gaiei buruzko dokumentazio garrantzitsua eta abar.

Aurten ahalegin handia egin da gure jarduerari lotutako informazioa iraultzeaz gain, **erabiltzaile eta gako berriak** eguneratu eta sortzeko. Batetik, profil berriak sortu dira eta webguneak zer funtzio duen azaldu zaie.

Bestetik, errepasoa egin da dagoeneko protokoloaren parte aktibo ez diren kideak ezabatuz eta gakoak birbegiratu. Izan ere, aurten eragile asko aldatu dira mahai teknikoan, eta tokiko bi mahai berri sortu dira. Mahai horiek beren web-orria dute udalerriko protokoloari buruzko dokumentazioa gordetzeko. Akta eta eduki interesgarriak sortu ahala elikatu beharko da atal hau.

Halaber, eskura dagoen informazioa berrikusten da, baliabideak hainbat espaziotatik sortzen ziren gogoeten jakitun egon zitezen: dokumentuak, webinarra...

Hauek dira aurten webgunera igotako zenbait dokumenturen adibideak: bilera guztien aktak eta intereseko informazioa, esate baterako, gida Penal (genero-indarkeriaren biktimetarako zigor-prozesua).

* Material guztia barneko web-espazioan dago eskuragarri: www.durungaldeprotokoloa.org

Helburua beteta



Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.

KTMri eta beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza + Politikariei zuzendutako prestakuntza.

Oso garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko trebakuntza eta prestakuntza sendoa eta espezializatua bermatzea protokoloa sinatu duen erakunde bakoitzeko profesionalentzat. Urtero bezala, aurten ere bi prestakuntza egin dira protokoloaren testuinguruan, KTMri eta KPMri zuzenduta.

Gainera, interesgarriak izan daitezkeen prestakuntza, mintegi eta jardunaldien berri eman diegu eragileei. Esaterako, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalen zuzendutako JABETUZ programaren berri.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

- *KTMri (eta interesa duten beste eragile batzuei) zuzendutako prestakuntza:*

Prestakuntza mahai bakoitzaren beharretara edo interesetara, uneko berrikuntzetara edo udalerrri sinatzaileen berdintasun arloek antzematen dituzten interes berezietara egokitu behar da. Mahai teknikoarekin adostu zen emakumeen aurkako indarkeria matxista eta ziberjazarpena Emokiren bitartez jorratuko zirela.

Urrian egindako aurrez aurreko saioan, lau orduko iraupenekoan, baliabideen 20 ordezkari bakoitza gehiagok hartu dute parte. Helburu hauekin:



Halaber, aurrez jorratutako gaiaren bilketa osatua eta esanguratsua eskaini ahal izateko, indarkeria mota horri lotutako informazio garrantzitsuen eta baliabideen laburpena jasotzen duen dossierra egin dugu.



Mahai teknikoaren Formakuntza 2023

* Zer da indarkeria digitala?/¿Que es la violencia digital?

La violencia digital contra las mujeres incluye todas las formas en las que la violencia es ejercida o facilitada a través de las tecnologías de la comunicación. Incluye la difusión no consentida de imágenes o videos, la coacción y las amenazas, el bullying sexualizado y otras formas de intimidación, el acoso sexual en línea, la suplantación de identidad, el acoso en línea o el acoso a través del internet, así como el abuso psicológico y el daño económico perpetrados a través de medios digitales contra las mujeres y las niñas.

Se produce generalmente sin que haya conciencia física, la reiteración se convierte en la estrategia de invasión de la intimidad más utilizada por los acosadores. Por ejemplo, la insistencia en el envío de mensajes o las peticiones recurrentes para conseguir algo se convierte en la fórmula para acosar a la víctima. U tras la ruptura de la pareja, los observadores utilizan internet para acosar a la víctima, siendo la estrategia comunicativa utilizada el chantaje emocional, para lograr volver a mantener una relación directa con la víctima.

Internet y las redes sociales constituyen un ámbito en el que la población más joven se encuentra muy cómoda y en el que desarrolla sus capacidades y relaciones sin las limitaciones impuestas en otros ámbitos. Por ello, determinados patrones de uso de internet que pueden ser interpretados como prácticas de riesgo, tales como intercambiar información o imágenes privadas, el control por parte de la pareja a través de las redes sociales, quedar con un desconocido por internet etcétera no se perciben como un peligro, sino como algo "normal".

Podrían ser signos que indican que se está produciendo violencia digital los siguientes:

- Acosar o controlar a tu pareja usando el móvil
- Interferir en relaciones de tu pareja en internet con otras personas
- Espiar el móvil de tu pareja
- Censurar fotos que tu pareja publica y comparte en redes sociales
- Controlar lo que hace tu pareja en las redes sociales
- Exigir a tu pareja que demuestre dónde está con su geolocalización
- Obligar a tu pareja a que te envíe imágenes íntimas
- Comprometer a tu pareja para que te facilite sus datos personales
- Obligar a tu pareja a que te muestre su chat con otra persona
- Mostrar enfado por no tener siempre una respuesta inmediata online

Los roles de género existentes en la sociedad se reproducen de igual manera en las redes sociales, propiciando las situaciones de acoso online hacia las mujeres. Las jóvenes, por lo general, manifiestan que a ellas se les juzga por su comportamiento y sus relaciones mucho más que a los varones, lo que provoca una mayor probabilidad de sufrir acoso. Independientemente del tipo de acoso del que se trate, los insultos, amenazas o mensajes que reciben son la mayoría de las veces por el hecho de ser mujeres y en relación a su vida sexual o relaciones personales.

1

* Prestakuntzari buruzko dossierra eskuragarri dago barne-webean:
www.durungaldeprotokoloa.org

Helburua beteta



Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

- *KPMri zuzendutako prestakuntza.*


Indarkeria sexistarik gabeko bizimodu batera gerturatzeko eta indarkeria hori jasaten duten emakumeak babesteko, babes politiko sendoa eta jarraitua behar da, helburu hori lortzeko behar adinako baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta materialak bideratuko dituen.

Koordinazio Politikoko Mahaiak, urtero, prestakuntza jasotzen du protokoloaren aldetik. Kasu honetan, Berdintasun Lege berriak dakartzan aldaketak eta udal mailako erantzukizunak jakinarazi dizkiegu. Halaber, legea eta Durangaldeko indarkeria-protokoloa nola uztartzen diren eta erantzun instituzional egokiak zer garrantzi duen aztertu dugu.

Udaletako politikarien aldaketarekin, eduki guztien eguneraketa integrala egin da eta espazioa aurkeztu da.

Lau udal sinatzaileetako alkateak, berdintasun-teknikariak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko presidentetza eta Ertzaintzako eta Osakidetzako arduradunak bertaratu dira prestakuntzara.

Prestakuntza ondo hartu zuten politikariek, eta protokoloa lantzen jarraitzeko interesa adierazi zuten:



Saioa Durangon egin zen, azaroaren 3an:

Izena	Kargua
Alazne Mendizabal	Elorrioko berdintasun-zinegotzia
Mikel Urrutia	Abadiñoako alkatea
Naiara Bidosola	Abadiñoako berdintasun-zinegotzia
Rolando Isoird	Berrizko alkatea
Carmen	Berriz berdintasun-zinegotzia
Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia	Durangoko alkatea
Jesica Ruiz	Durangoko berdintasun-zinegotzia
Paule Sanchez Arieta-Araunabeña	Durangoko berdintasun-batzordeko presidentea
Ainara Otxorena	Mankomunitateko presidenteordea
Idoia Otaduy	Mankomunitateko presidentea
Iraia	Ikerketa Unitateko burua EI/GI lantaldeen arduraduna
Ismael Gallo	EI/GI lantaldea

Helburua beteta



Hilero bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).

Hileroko buletina _ Boletín mensual. Urria 2019_Octubre 2019

BERRIAK NOTICIAS

San Faustoei begira autodefentsa eta jai parekideak lantzeko tailerrak antolatatu dituzte

Mutilei zuzendua egongo da tailer horietako bat eta jai parekideak nola landu daitezkeen azalduko dute. 15 eta 26 urte bitarteko mutilei zuzenduta dago. Emakumeek autodefentsa feminista lantzeko ikastaroa izango dute eskura... [Informazio gehiago>>](#)



Clamor contra un congreso sobre el síndrome de alienación parental en la Universidad de Deusto

El SAP es un hipotético síndrome que consiste en manipular a los niños y niñas para ponerlos en contra de otro miembro de la familia, generalmente la madre contra el padre. Mujeres que Aman Demasiado y la asociación contra la violencia Gafas Moradas... [Más información>>](#)



Emakunde erakunde eta eragile sozialekin lanean ari da emakume eta neskatuen salerosketa eta sexu esplotazioaren prebentzioan

Mahai honetan koordinazio, sentsibilizazio eta prestakuntza ekimen ezberdinak bultzatu dira. 2018an, adibidez, eremu ezberdinetako 233 profesionalen prestakuntza berezia jaso dute gaiaren inguruan. Honekin batera, mahaiaren helburuen artean... [Más información>>](#)



Durango decreta el «estado de emergencia» y se tiñe de violeta contra la violencia machista

Durango se tiñó ayer de luces violetas contra la violencia machista tras un trágico verano en el que, tan solo durante las fiestas de las capitales de Euzkai Herria, se han registrado 25 denuncias por abusos sexuales. «¿Es normal que durante el mes de julio haya sido asesinada una mujer cada dos días?... [Más información>>](#)



Helburua beteta



Hilero bidaltzen zaie Koordinazio Teknikoko Mahaiko (KTM) kideei indarkeria matxistari lotutako intereseko **albisteak eta ekitaldiak** biltzen dituen **buletina**: gaiarekin lotutako albisteak, tokiko albisteak eta udalerriaz gairako albiste interesgarri batzuk; EAEren esparruarekin lotutako jardunaldiak eta ekitaldiak; protokoloan parte hartzen duten udalerrietan gaiari buruz egiten diren ekitaldiak. Alderdi hori udal bakoitzeko berdintasun-teknikariak ematen duten informazioari esker sortzen da.

Urteko plangintza diseinatzea eta abian den urtean egindako lana ebaluatzea. *Urteko memoria*

+ Plangintza dokumentua egitea

Urtearen amaieran **urteko memoria** egiten da, eta Koordinazio Teknikoko Batzordeak berrikusten du. Ondoren, sinatu duten erakundeei aurkezten zaie. Egindako jarduketak, Koordinazio Teknikoko Batzordean hartutako erabakiak eta proposamenak jasotzen dira bertan, eta urtean zehar jasotako datu kuantitatiboak erregistratzen dira, indarkeriaren inpaktua ezagutu ahal izateko.

Hurrengo urterako **plangintza** ere egiten da, esperientzian eta prozesuan hautemandako beharretan oinarrituta. *Ad hoc* plangintza izaten da, KTMrekin partekatzen da eta KPMn aurkezten da. Dokumentuak 2023an jorratzeko helburu eta ekintza sorta bat biltzen du, Koordinazio Orokorreko Mahaiaren barne-hausnarketatik eta aurreko urteko memorian identifikatutako erronketatik abiatuta.

Gainera, dauden jarraipen-adierazleen datuak biltzen dira, parte hartzen duten erakunde eta jarduerak eremu guztiei ebaluazio koordinatua eta etengabea egiteko aukera emateko, baterako jarduerak planteatutako helburuetara etengabe egokitu ahal izateko.

Helburua beteta



Protokolotik kanpoko eragileekin izandako bileretan **protokoloa hedatzea**.

Udalerrietako berdintasun-teknikariak arduratzen dira triptikoa hedatzeaz.

AURTEN LANDU DIREN HELBURU ETA EKINTZA ESPEZIFIKOAK				
HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIO A/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
8. Harremanak indartzea protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin. Adierazlea: Harremana sortzeko e-mailak	- Bilera mugimendu feministako kideekin. - Bilera Andragunearekin - Harremana Berritzegunearekin eta Durangoko ofizioko epailearekin	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa. Kanpoko eragileak.	Aktak	<i>B2.8 Hezkuntzarekin erakundeko koordinazioa hobetzea. B3.2. Gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan aritzeko bideak ezartzea, indarkeria jasaten aritu daitezkeen edo ari diren emakumeekin prebentzio- eta hautemate-lanak egiteko eta haiei lagun egiteko.</i>
9. Indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten profesionalentzako erabilgarriak izan daitezkeen inguruko baliabideak ezagutaraztea.	- Baliabideren baten aurkezpena.	Idazkaritza Teknikoa. KTM.	Aktak, mezu elektronikoak.	<i>C1.1. Indarkeria matxistaren inguruko ezagutza sustatzea.</i>
10. Hautemateko prozesua lantzea eta sistematizatzea	- Inplikaturako eragileekin lantzea hautemateak eta sistematizatzeak duen garrantzia.	Idazkaritza Teknikoa. KTM.	-	<i>B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.</i>

Egindako ekintzen xehetasunak:

Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea:

